



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2019ko urriaren 22a

26. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egoki diren neurriak gara ditzan apustu-eteak irekitzeari moratoria bat ezartzeko. Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zuzenean toki entitateentzako izanen den aurrekontu-partida bat jaso dezan, udalen titulartasuneko igerilekuak araudira egokitzera bideratua. Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkeztu du (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, José Gudiol bildumatik etorririk Juan Oliver margolariari egotzitakoa den artelan baten enkantea gerarazteari buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren 2019ko urriaren 11ko epaiari buruzkoa, zeinaren bidez ezetsi egiten baitira amatasun-bajei dagokien PFEZa itzultzeko erreklamazioak. Uxue Barkos Berruezo andreak egin du (5. or.).
- Galdera, Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeak iragarritako proposamen bateratuari buruzkoa; hots, nazioarteko merkataritza-harremanak eraentzen dituzten arau eta printzipio fiskalen erreforma bat egiteari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, joan den uztailaren 8ko Nafarroako Erdialdeko uholdeek kalteturiko toki entitateen eskaerei buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, 2018ko superabitari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (7. or.).
- Galdera, Tuteran legegintzaldi honetan osasun-etxeak handitzeko edo berriak eraikitzeko lanei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (8. or.).
- Galdera, kataluniar independentismoaren buruzagien aurka Auzitegi Gorenak emandako epaiari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (8. or.).

- Galdera, Nafarroako Gobernuak administrazioan aldi baterako kontratuak % 8ra jaiste aldera hartuko dituen neurriei buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, Erizaintzako Lan Eskaintza Publikoari buruzkoa. Patricia Fanlo Mateo andreak egin du (10. or.).
- Galdera, toki entitateek 2020an udal igerilekuetan higie-ne eta osasun baldintzak eta segurtasun baldintzak ezartzen dituen araudia bete ahal izan dezaten beharrezkoak diren inbertsioei buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, abere-makroustiategiei buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen zerga-lehiakortasunari buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren, Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren arteko lankidetzaz hitzarmenari buruzkoa, familiaren etxebizitzatik irazketak egiten direnean zaurgarritasun-kasuei antzematearen gainekoa eta etxegabetez nahiz hipoteka-exekuzio-ko prozeduretako neurri sozialen eta datu-lagapenaren gainekoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (12. or.).
- Galdera, Nafarroako 2020ko Aurrekontu Orokorren proiekturako aurreikusitako gastu-mugaren kalkuluari buruzkoa. María Jesús Valdemoros Erro andreak egin du (13. or.).
- Galdera, “procés” delakoaren epaiketako epaiari eta azken egunotan Kataluniako kaleetan sorturiko egoerari buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Arartekoaren ebazpenari buruzkoa, onuradunek Nafarroa Beken zenbatekoak itzuli behar ez izatea dela-eta. Javier García Jiménez jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, NA-6900 errepidearen eta bertako Alhama ibaiaren gaineko zubiaren segurtasunari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Tuterako campusean unibertsitate-gradu berriak abiarazteari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluari Enplegu Planaren prestaketarako dei egiteari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Exekutiboko kideen ondasun-aitorpenei buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Funtzio Publikorako sarbideari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, abeltzaintza estentsiboaren sektorearen krisiari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, emakumezkoen kirola indartzeko nola jokatu den jakitekoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, apustu-etxeen erregulaziorako departamentuarterako lantaldearen helburuei buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, jakitekoa ea zergatik den ezinezkoa arau berri batek amatasunagatiko prestazioen atzeraeragina jaso dezan. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, jakitekoa zer neurri aplikatu diren, kontrol hutsa egiteaz harago, fenol kloratuen isurketa ezarrita dauden mugetara ekartzeko. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (19. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Hezkuntza Batzordeak Nafarroako Eskola Kontseiluan dituen ordezkariak izendatzea (20. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egoki diren neurriak gara ditzan apustu-etxeak irekitzeari moratoria bat ezartzeko.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, NAFARROAKO PODEMOS AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egoki diren neurriak gara ditzan apustu-etxeak irekitzeari moratoria bat ezartzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen dugun talde parlamentariok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkezten dugu, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egoki diren neurriak gara ditzan apustu-etxeak irekitzeari moratoria bat ezartzeko.

Nafarroako Parlamentuak ponentzia parlamentarioa eratu zuen Nafarroan apustu-etxeak arautzeko, osasun publikoko arazo bihurtzen ari den auzi horri irtenbide bat ematen saiatzeko.

Ponentzia horrek sei hilabeteko epea dauka bere xedea betetze aldera hartu beharreko erabakiak hartzeko; gure ustez, halere, Nafarroak urratsak egiten hasi behar du Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean ikasitako arriskuak minimizatzen.

Jakin badakigu horri buruz dagoen legedia hiru legegintza-gunetan datzala. Lehendabiziko gunea nazioaren esparruko legegintzari dagokio; bigarrena, erregioen esparrukoari –hor da, besteak beste, zergen arloko legegintza–; eta, azkenik, udal ordenantzak daude, batik bat lokalak irekitzeko lizentziei dagokienez.

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen duten talde parlamentarioek honako erabaki proposamen hau aurkezten dute:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egoki diren neurriak gara ditzan indarreko araudiaren baitan, Nafarroako Foru Komunitatean apustu-etxeak irekitzeari moratoria bat ezartzeko, horretarako eratu den ponentziak bere lana egiten duen bitartean.

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Foru parlamentariak: Jorge Aguirre Oviedo, Blanca Regúlez Álvarez, Ainhoa Aznárez Igarza eta Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zuzenean toki entitateentzako izanen den aurrekontu-partida bat jaso dezan, udalen titulartasuneko igerilekuak araudira egokitzea bideratua.

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita zuzenean toki entitateentzako izanen den aurrekontu-partida bat jaso dezan, udalen titulartasuneko igerilekuak araudira egokitzea bideratua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdoncesek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, udalen titulartasuneko igerilekuak araudira egokitze aldera 2020ko aurrekontuetan zuzenean toki entitateentzako izanen den partida bat jasotzeari buruzko honako mozio hau aurkezten du, 86/2018

Foru Dekretua bete dadin, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Nafarroako Gobernuak foru dekretu bat onetsi zuen 2018an, zeinaren bidez aldatu egin baitziren Nafarroako igerilekuak bete beharreko higie eta osasun baldintzak eta segurtasun baldintzak, instalazio horiek erabiltzen dituzten pertsonen osasuna eta segurtasuna babesteko xedez.

Besteak beste, neurriak bereziki bideratuta zeuden igerilekuetako ontzietako uraren kalitate-baldintzak estatuko araudira egokitzea; igerileku estalietako airearen kalitate-baldintzak jasotzea, eta igerilekuetako titularrek pertsoneri eman beharreko informazioa garatzera.

Nafarroako udal-igerileku gehienek obra handiak egin behar dituzte legea betetzeko, eta 2020ko abenduaren 31 baino lehen egin behar dituzte obra horiek, baina askok ez daukate horretarako ahalmen ekonomikorik.

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2020ko aurrekontuetan zuzenean toki entitateentzako izanen den aurrekontu-partida bat jaso dezan, udalen titulartasuneko igerilekuak araudira egokitzea bideratua.

Iruñean, 2019ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

F saila:
GALDERAK

Galdera, José Gudiol bildumatik etorririk Juan Oliver margolariari egotzitakoa den artelan baten enkantea gerarazteari buruzkoa.

CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak aurkeztutako galdera, José Gudiol bildumatik etorririk Juan Oliver margolariari egotzitakoa den artelan baten enkantea gerarazteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoren babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura eta Kiroleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Prentsan argitaratu da Kultura Departamentuko aholkularitza juridikoak gerarazi egin duela bera titularra den artelan baten enkantea. Artelan hori Juan Oliver (1332) margolariarena dela jo izan da, eta José Gudiol bildumatik dator:

Zer jarduketa egin ditu Departamentuak gai hori dela eta?

Iruñean, 2019ko urriaren 11n

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

Galdera, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren 2019ko urriaren 11ko epaiari buruzkoa, zeinaren bidez ezetsi egiten baitira amatasun-bajei dagokien PFEZa itzultzeko erreklamazioak.

UXUE BARKOS BERRUEZO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Uxue Barkos Berruezo andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren 2019ko urriaren 11ko epaiari buruzkoa, zeinaren bidez ezetsi egiten bai-

tira amatasun-bajei dagokien PFEZa itzultzeko erreklamazioak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Uxue Barkos Berruezok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak ahoz erantzun dezan:

2019ko urriaren 11n, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak Nafarroako amatasun-bajei dago-

kien PFEZa itzultzeko erreklamazioak ezesteko epaia eman du. Hori dela eta, honako galdera hau egiten diogu Nafarroako Gobernuko lehendakariari, ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten duzu epai horri buruz?

Iruñean, 2019ko urriaren 11n

Foru parlamentaria: Uxue Barkos Berruezo

Galdera, Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeak iragarritako proposamen bateratuari buruzkoa; hots, nazioarteko merkataritza-harremanak eraentzen dituzten arau eta printzipio fiskalen erreforma bat egiteari buruzkoa.

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako galdera, Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeak iragarritako proposamen bateratuari buruzkoa; hots, nazioarteko merkataritza-harremanak eraentzen dituzten arau eta printzipio fiskalen erreforma bat egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torresek, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

ELGAK iragarria du 130 herrialderi "proposamen bateratu" bat eginen diela azken ehun urteetan nazioarteko merkataritza-harremanak erregulatu dituzten arau eta printzipio fiskalen erreforma bat egiteko. Erreforma horrek eragina izanen luke nagusiki, enpresa teknologiko erraldoi batzuetan, nola baitira Google, Apple, Facebook edo Amazon.

Gure erkidegoak daukan fiskalitate propioa kontuan hartuta, honako galdera hau egiten dugu:

Neurri horrek zer eragin izanen du gure sistema fiskalean eta Nafarroako Gobernuak zein neurri hartu ditu edo hartuko ditu errealitate berri horri egokitzeko?

Iruñean, 2019ko urriaren 11n

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

Galdera, joan den uztailaren 8ko Nafarroako Erdialdeko uholdeek kalteturiko toki entitateen eskaerei buruzkoa.

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztutako galdera, joan den uztailaren 8ko Nafarroako Erdialdeko uholdeek kalteturiko toki entitateen eskaerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako erdialdeko uztailaren 8ko uholdeek ukitutako toki entitateen zenbat eskaerari ez zaio erantzunik eman Toki Azpiegituren Planaren bidez, larrialdiko bidea erabiliz, eta zein da haien zenbateko ekonomikoa?

Iruñean, 2019ko urriaren 11n

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

Galdera, 2018ko superabitari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, 2018ko superabitari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde mistoko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak hurrengo kontroleko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak iragarri du Gobernuak zorra amortizatzen ari dela 2018ko superabitarekin.

2018ko kontu publikoetatik zenbateko superabita erabili da zorra amortizatzeke eta beste jar-duera batzuetarako?

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Tuteran legegintzaldi honetan osasun-etxeak handitzeko edo berriak eraikitzeke lanei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, Tuteran legegintzaldi honetan osasun-etxeak handitzeko edo berriak eraikitzeke lanei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Legegintzaldi honetarako zein plangintza egin du Osasun Departamentuak, Tuteran osasun etxe berriak eraikitzeke edo lehendik daudenak zabalteke obrak direla eta?

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, kataluniar independentismoaren buruzagien aurka Auzitegi Gorenak emandako epaiari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, kataluniar independentismoaren buruzagien aurka Auzitegi Gorenak emandako epaiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

gelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakari María Chivite Navascués andreari zuzendua, eta heldu den osteguneko, urriaren 24ko Osoko Bilkuraren gaitzerrendan sar dadin eskatzen du.

Gaur, urriaren 14an, ezagutu dugu Auzitegi Gorenak Kataluniako independentismoaren liderren aurka eman duen epai guztiz larria. Horri buruz, honako galdera hau egin behar dugu:

Nola baloratzen ditu Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuaren jarrera eta epai horren ondorioak, bai eta Kataluniako herriaren erabakitzeko eskubideari erantzun demokratiko bat emateko beharra?

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa Talde Parlamentarioaren eledun Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erre-

Galdera, Nafarroako Gobernuak administrazioan aldi baterako kontratuak % 8ra jaiste aldera hartuko dituen neurriei buruzkoa.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak administrazioan aldi baterako kontratuak % 8ra jaiste aldera hartuko dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariorde Javier Remírez Apesteguía jaunak ahoz erantzun dezan.

2017ko martxoaren 29an, Espainiako Estatuko Gobernuak eta Funtzio Publikoan ordezkari handiena duten sindikatuek enplegu publikoa eta lan baldintzak hobetzeko lehenengo akordioa sinatu zuten. Akordio horren bigarren puntuan hainbat neurri jasotzen zen administrazioetan aldi baterako enplegua murrizteko; honako neurri hauek, besteak beste: egonkortasuna indartzea

hainbat sektoretan (hezkuntza, osasuna...), eta sektore eta esparru horietako bakoitzean hiru urtez baino gehiagoz aldi baterako langileek bete dituzten lanpostuetarako deialdia egin ahal izatea, halako moduz non, hurrengo hiru urteetan, aldi baterako betetako lanpostuen eta akordio hori sinatu zen datan aldi baterako lotura zuten langileen kopuruaren gehienez ere % 90 gutxituko den.

Halaber, 2018ko martxoaren 9an Enplegu publikoa eta lan baldintzak hobetzeko II. Akordioa sinatu zuten, eta hirugarren puntuan berresten zuten 2017ko akordioan hartua zuten konpromisoa eta, orobat, honako hau erabaki zuten: Aldi baterako enplegua egonkortzeko tasa gehigarri bat edukitzea, bertan sartuta zerbitzuetako lanpostuak... aurrekontu-zuzkidura izan eta 2017ko abenduaren 31 baino lehenagoko hiru urteetan beteta egon direnak, halako moduan non aldi baterakoek betetakoaren tasa % 8tik behera egon den aldiaren amaieran.

Ikusirik gaur egungo aldi baterako kontratuen tasa oso handia dela oraindik eta lan publikoaren eskaintzek ez dutela ahalbidetuko hura jaitea, parlamentari honek honako hau galdetzen du:

Zer neurri abiaraziko du Nafarroako Gobernuak Enplegu publikoa hobetzeko akordioak bete eta aldi baterako kontratuen tasa % 8raino murrizte aldera?

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

Galdera, Erizaintzako Lan Eskaintza Publikoari buruzkoa.

PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztutako galdera, Erizaintzako Lan Eskaintza Publikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Patricia Fanlo Mateo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osasuneko kontseilari Santos Indurainek Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Erizaintzako lan-eskaintza publikoaren ebazpenaren atzerapenak egonezina sorrarazi du osasun arloko profesionalen eta sektoreko sindikatuen artean.

Zer fasetan dago prozesua eta noiz jakinen dira Erizaintzako lan-eskaintza publikoaren behin betiko emaitzak?

Iruñean, 2019ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

Galdera, toki entitateek 2020an udal igerilekuetan higie eta osasun baldintzak eta segurtasun baldintzak ezartzen dituen araudia bete ahal izan dezaten beharrezkoak diren inbertsioei buruzkoa.

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztutako galdera, toki entitateek 2020an udal igerilekuetan higie eta osasun baldintzak eta segurtasun baldintzak ezartzen dituen araudia bete ahal izan dezaten beharrezkoak diren inbertsioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Foru Komunitateko igerilekuek bete beharreko higie eta osasun baldintzak eta segurtasun baldintzak ezartzen dituen urriaren 24ko 86/2018 Foru Dekretuak behartzen du egokitzapenak egitera udal titulartasuneko igerilekuetan eta horrek inbertitzeko ahalegina eskatuko die Nafarroako toki entitate askori. Egokitzapen horiek egiteko epea 2020an bukatzen da. Ba al dago balorazio ekonomikorik toki entitateek egokitzapenak bete ahal izan dezaten beharrezkoak diren inbertsioei buruz?

Iruñean, 2019ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

Galdera, abere-makroustiategiei buruzkoa.

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztutako galdera, abere-makroustiategiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Duela gutxi jakin dugu behitegitzar bat jarriko dutela Nafarroatik gertu. Hori dela eta, zer iritzi du Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak halako abere-makroustiategiei buruz eta zein da defendatzen duen ustiapen-eredua?

Iruñean, 2019ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

Galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen zerga-lehiakortasunari buruzkoa.

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen zerga-lehiakortasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentariari atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Duela gutxi argitaratutako txosten baten arabera, Nafarroako Foru Komunitatearen zerga-lehiakortasunak okerrera egin du.

Nafarroako Gobernuak zer neurri aurreikusi du zerga-lehiakortasuna hobetzeko?

Iruñean, 2019ko urriaren 16an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Gárate

Galdera, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren, Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren arteko lankidetzaren hitzarmenari buruzkoa, familiaren etxebizitzatik irazketak egiten direnean zaurgarritasun-kasuei antzematearen gainekoa eta etxegabetze- nahiz hipoteka-exekuzioko prozeduretako neurri sozialen eta datu-lagapenaren gainekoa.

MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak aurkeztutako galdera, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren, Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren arteko lankidetzaren hitzarmenari buruzkoa, familiaren etxebizitzatik irazketak egiten direnean zaurgarritasun-kasuei antzematearen gainekoa eta etxegabetze- nahiz hipoteka-exekuzioko prozeduretako neurri sozialen eta datu-lagapenaren gainekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuaren 2019ko irailaren 19ko Erabakiaren bidez onetsi zen Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak hitzarmenaren gehigarri bat, familia-etxebizitza kentzearen ondoriozko zaurgarritasun-kasuak hauteman eta gizarte neurriak hartzeari eta etxegabetze- nahiz hipoteka-exekuzioko prozeduretako neurri sozialen eta datu-lagapenari buruzkoa.

Zer jarduketa jarri dira abian 2016ko irailaren 22an sinatutako hitzarmen horren esparruan?

Iruñean, 2019ko urriaren 16an

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

Galdera, Nafarroako 2020ko Aurrekontu Orokorren proiekturako aurreikusitako gastu-mugaren kalkuluari buruzkoa.

MARÍA JESÚS VALDEMOROS ERRO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Jesús Valdemoros Erro andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako 2020ko Aurrekontu Orokorren proiekturako aurreikusitako gastu-mugaren kalkuluari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen M^a Jesús Valdemoros Erro andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein da 2019rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legearen proiekturako aurreikusitako gastu-muga kalkulatzeko erabili den zerga-politika?

Iruñean, 2019ko urriaren 16an

Foru parlamentaria: María Jesús Valdemoros Erro

Galdera, “procés” delakoaren epaiketako epaiari eta azken egunotan Kataluniako kaleetan sorturiko egoerari buruzkoa.

ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkeztutako galdera, “procés” delakoaren epaiketako epaiari eta azken egunotan Kataluniako kaleetan sorturiko egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Bonilla Zafra jaunak honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein da Nafarroako Gobernuaren iritzia “procés” delakoaren epaiketako epaiari eta azken egunotan Kataluniako kaleetan sorturiko egoerari buruz?

Iruñean, 2019ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

Galdera, Arartekoaren ebazpenari buruzkoa, onuradunek Nafarroa Beken zenbatekoak itzuli behar ez izatea dela-eta.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, Arartekoaren ebazpenari buruzkoa, onuradunek Nafarroa Beken zenbatekoak itzuli behar ez izatea dela-eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak ba al du Arartekoaren ebazpena aintzat hartzeko asmorik, onuradunek ez dezaten Nafarroa Beken dirua itzuli behar izan?

Iruñean, 2019ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, NA-6900 errepidearen eta bertako Alhama ibaiaren gaineko zubiaren segurtasunari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, NA-6900 errepidearen eta bertako Alhama ibaiaren gaineko zubiaren segurtasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lurralde Kohesiorako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilari Bernardo Ciriza Pérez jaunak batzordean ahoz erantzun dezan:

Noiz ekinen diezu NA-6900 errepidearen eta bertako Alhama ibaiaren gaineko zubiaren segurtasuna bermatzeko egin behar diren jarduketei?

Iruñean, 2019ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Tuterako campusean unibertsitate-gradu berriak abiarazteari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Tuterako campusean unibertsitate-gradu berriak abiarazteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernu Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilari Juan Cruz Cigudosa García jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuaren ustez, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Tuterako Campusak unibertsitate-gradu gehiago hartu behar al ditu dauzkanez gain?

Iruñean, 2019ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluari Enplegu Planaren prestaketarako dei egiteari buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkeztutako galdera, Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluari Enplegu Planaren prestaketarako dei egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari M^a Isabel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernu lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernu lehendakariak noiz deituko du Elkarrizketa Sozialaren Kontseilua Enplegu Plana prestatzeko?

Iruñean, 2019ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: María Isabel Garcia Malo

Galdera, Exekutiboko kideen ondasun-aitorpenei buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkeztutako galdera, Exekutiboko kideen ondasun-aitorpenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuko kideek kargua hartu zutenetik bi hilabete igaro badira ere, oraindik ez dira argitaratu haien ondasun-aitorpenak. Zer dela eta?

Iruñean, 2019ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, Funtzio Publikorako sarbideari buruzkoa.

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztutako galdera, Funtzio Publikorako sarbideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko Harremanetako kontseilari Ana Olla Hualde andrearekin Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zure ustez, Foru Administrazioa euskararen eta beste hizkuntzen ezagutza baloratu gabe sartu diren funtzionarioak hala-holakoak dira guztiak?

Iruñean, 2019ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, abeltzaintza estentsiboaren sektorearen krisiari buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztutako galdera, abeltzaintza estentsiboaren sektorearen krisiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Abeltzaintza estentsiboaren sektorearen krisiak Nafarroa osoa ukitzen du, bereziki mendiko abeltzaintza, eta Pirinioetan areagotu egin da Esloveniako hartz eme bat modu artifizialean sartzeagatik. Zer plangintza du Landa Garapeneko Departamentuak krisi hori geldiarazteko?

Iruñean, 2019ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Galdera, emakumezkoen kirola indartzeko nola jokatu den jakitekoa.

CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak aurkeztutako galdera, emakumezkoen kirola indartzeko nola jokatu den jakitekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Mena Blasco jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamendua ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura eta Kiroleko kontseilariak 2019ko urriaren 24ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Joan den irailaren 25ean, Kultura eta Kiroleko Batzordean egindako agerraldian, honako hau esan zenuen: "Emakumezkoen kirola indartzea gakoa da emakumeen kirola ikusarazteko eta erreferenteak sortzeko. Emakumezkoek kirola egiteari goizegi uztea geldiarazteko edo kirolaren mundutik genero-estereotipoak eta jarrera diskriminatzaileak desagerrarazteko".

Nola indartuko du zure departamentuak emakumezkoen kirola?

Iruñean, 2019ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

Galdera, apustu-etxeen erregulaziorako departamentuarteko lantaldearen helburuei buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, apustu-etxeen erregulaziorako departamentuarteko lantaldearen helburuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak urriaren 24ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Apustu-etxeen erregulazioari buruzko departamentuarteko lantalde bat sortu dela ikusita,

Zer helburu ezarri dira departamentuarteko lantalde horretan?

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

Galdera, jakitekoa ea zergatik den ezinezkoa arau berri batek amatasunagatiko prestazioen atzeraeragina jaso dezan.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa ea zergatik den ezinezkoa arau berri batek amatasunagatiko prestazioen atzeraeragina jaso dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Amatasunagatiko prestazioen salbuespena aplikatzeari uko egin ostean –kaltetutako gurasoei hori agindu zenien–, zergatik uste duzu orain ezinezkoa dela arau berri batek prestazio horien atzeraeragina jasotzea?

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, jakitekoa zer neurri aplikatuko diren, kontrol hutsa egiteaz harago, fenol kloratuen isurketa ezarrita dauden mugetara ekartzeko.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zer neurri aplikatuko diren, kontrol hutsa egiteaz harago, fenol kloratuen isurketa ezarrita dauden mugetara ekartzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera

hau egin du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Orain dela gutxi jakin dugu Nafarroako fenol kloratuentzat ezarritako muga gainditzen duela automobilgintza-industriako enpresa batek bere industria-uren isurketetan.

Gaur egun, Nafarroako araudiak ezartzen du fenolen konposatu horren muga 0,3 mg/l-koa dela industria-urei dagokienez. Kasuko enpresa hori Arazuriko araztegira isurtzen ari da bere hondakin-urak, 0,45 eta 1,5 gr/l-ko fenol-metaketaekin.

Jakin badakigu Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua isurketa horien gaineko kontrol zehatza egiten ari dela urtero.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak inolako neurri edo ekimenik aplikatu edo ezarriko al du, kontrol hutsa egiteaz harago, aipatutako konposatu horien isurketa ezarrita dauden mugetara ekartzeko?

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Hezkuntza Batzordeak Nafarroako Eskola Kontseiluan dituen ordezkariak izendatzea.

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2019ko urriaren 15ean egindako bilkuran, ondokoa erabaki zuen, besteak beste:

1. Honako pertsona hauek izendatzea Hezkuntza Batzordearen ordezkari Nafarroako Eskola Kontseiluan:

– Jabi Arakama Urtiaga jauna

– Patricia Fanlo Mateo andrea

2. Nafarroako Gobernuari erabaki honen berri ematea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias
